

ELKARRETARATZEAK



DAVID AGUILAR / EFE

EUSKO LEGEBILTZARREAN, KAZETARIEKIN. Juan Maria Atutxa buru zela, Eusko Legebiltzarreko parlamentariak ordu laurdeneko isilunea egin zuten Gasteizko egoitzaren aurrean. Confebask EAEko enpresari elkartearen presidentea Roman Knörr eta zenbait kazetari ere izan ziren Gasteizko Legebiltzarrearen atariko kontzentrazioan.



LUIS TEJIDO / EFE

BILBOKO UDALETXEAN. Ehun pertsona inguru elkartu ziren Bilboko udaletxeko sarreran, Iñaki Azkuna alkatea buru. EB-IUko Javier Madrazo, PSE-EEko Patxi Lopez eta *El Correo*-ko arduradunak han izan ziren.



XOISE SIMAL

EAJ-KO BURUZAGIAK SABIN ETXEAN. EAJko buruzagiek eta enplegatuek elkarretaratzea egin zuten Bilbon, Sabin Etxean. Xabier Arzalluz, Joseba Egibar, Iñigo Urkullu, Josune Ariztondo, Iñaki Anasagasti, Jose Antonio Rubalcaba eta Josu Ortuondo bildu ziren, besteak beste.

«Ez gaude amore emateko prest»

Donostiako Haize Orrazian kontzentrazioa egin zuten kazetari eta politikari ugari atentatua salatzen

Erredakzioa | DONOSTIA

Donostiako Haize Orrazian 200 bat kazetari elkartu ziren atzo eguerdian, *El Diario Vasco*-ko langile Santiago Oleagaren hil-keta salatu, eta ETari «adierazpen askatasuna erabiltzen eta defenditzen» jarraituko dutela adierazteko.

Correo Taldeko kontseilari ordezkari Jose Maria Bergaretxek, *El Diario Vasco*-ko zuzendari Jose Gabriel Mujikak eta *El Correo*-ko zuzendari Angel Arnedok parte hartu zuten elkarretaratzean, Euskal Herriko komunikabideetako kazetari eta langile ugariarekin batera.

Ordezkaritza politiko esan-guratsua ere izan zen Haize Orrazian. Juan Jose Ibarretxe EAEko lehendakaria, Roman Sudupe Gipuzkoako ahal-dun nagusia, Odon Elorza Donostiako alkatea, Inaxio Oliveri eta Mari Karmen Garmendia Jaur-laritzako kontseilariak, eta alderdi politikoetako buruzagi ugari: EAJko Juan Maria Juaristi; EAKo Gorka Knörr, Begoña Lasagabaster eta Onintza Lasa; PSEko Rodolfo Ares eta Manuel Huertas; eta PPko Santiago Quiroga, besteak beste.

Euskal Herriko zenbait irrati esatarik adierazpen askatasunaren alde eta ETaren aurka grabatutako mezuarekin hasi zen Haize Orraziko kontzentrazioa. Testua Juan Palomo eta Aurora Intxaustiren eta Gorka Landabururen aurkako atentatuen ostean irakurritako bera izan zen. Bertan, ETaren atentatu ekinaldirik ez dutela onartuko adierazi zuten kazetariak. Halaber, «pistolen xantaiari amore emateko prest» ez dau-

dela nabarmendu zuten. Txalo artean amaitu zen elkarretaratzea.

Donostiako Prentsa Elkarte-ko presidente Carlos Moronek esan zuen Euskal Herriko kazetariak lanean jarraituko dutela, «bizkartzainekin edo gabe».

Elkarretaratzeak Madrilén ere, eta gaitzespen gehiago

Madrilgo komunikabide ugari ere atentatua gaitzetsi zuten atzo, Madrilgo Prentsa Elkartearen deia jarraituz. Ser, COPE, RNE eta Onda Cero irratiak, TVE, Antena 3, Canal Plus eta CNN+ telebista kateak eta Efe berri agentziaren egoitzen aurrean bost minutuko kontzentrazio isilak egin zituzten.

Egunkarien Munduko Elkarteak eta Prentsa Nazioarteko Institutuak ere atentatua gaitzetsi zuten atzo, eta komunikabideak «ETaren lehen jomuga» bilakatzen ari direla salatu.



PABLO S. QUIZA

Ehunka kazetari bildu ziren atzo Haize Orraziko elkarretaratzean, azken atentatua salatzen.

CORREO TALDEA

Segurtasun neurriak indartuko dituztela esan du Bergaretxek

Jose Maria Bergaretxe Correo Taldeko kontseilari-ordezkaria Haize Orraziko kontzentrazioan izan zen atzo. Santiago Oleaga zenaren lankideak «lur jota», eta senitartekoak «hondoa jota eta txikituta» daudela esan zuen. «Baina guztiek nabarmendu dute, Oleagari egin dakioken omenaldirik onena, lanean jarraitu eta egunkari on bat egitea dela», erantsi zuen Bergaretxek.



JAVIER ETXEZARRETA / EFE

Jose Maria Bergaretxe Correo Taldeko kontseilaria eta Juan Jose Ibarretxe, atzo.

Correo Taldeko egunkarien segurtasuna «indartu» egingo dutela baieztatu zuen kontseilari ordezkariak, Haizearen Orrazian. Bergaretxek «inoiz baino bat- tuago» egon behar dutela azpimarratu zuen, eta, «informazioaren profesionalak garen heinean», Correo Taldeko guztien «obligazioa» aurrera egitea dela, «herri hau arrazionalizatzeko aldera, bizi ditugun drama eta arazo hauek amaitzeko».

El Correo egunkari-ko zuzendari Angel Arnedok, bestalde, «terrorismoaren arazo handietako bat ETaren txibatoa» direla esan zuen, «politiko, kazetari eta epaileen ibilbideak apuntatzen hilabeteak ematen dituzten horiek, auzokideak zaindu eta salatzen dituztenak».